# Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA

201.zkia . 2007eko abuztua




3. Alkatearen agurra
4-7. Jaietako programa
15-16. Elkarrizketa: Mikel Jauregi
20-21. Kantineren irudiak
27. Kolaborazioak
38. Demografia

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN




kutxa

Gora Ama Guadalupekoa!












JAIETAKO PROGRAMA



Alkate moduan lehen aldiz, zuek agurtzeko ohorea dut eta aukera honetaz baliatzen naiz, Guadalupeko Ama gurearen ohorez, maitasun eta ardura osoz prestatu dugun jaietako programa aurkezteko. Zuen gustukoa izatea nahi nuke, benetan.

Ama Guadalupekoari eskerrak emanez egiten diogun botoa, hondarribiarrok historia eta kulturarekin dugun konpromisorik nabarmenena da. Horrela, urtero egiten dugun bezala, ehunka urteko gure tradizio hau berritu eta herri bezala gure sentimenduak adieraziko ditugu.

Horregatik, ziur nago gure nahia dela jaiak, hain zuzen, JAI bezala, OROITZAPEN bezala ospatzea. Denok hala nahi dugu eta denok lagundu behar dugu Hondarribia egunotan toki berezia izan dadin, bazter guzti, familia eta etxe guztietan alaitasuna zabaltzen den tokia.

Ezin agurrik esan, gurekin une ahaztezinak pasa eta jadanik gure artean ez dauden lagun maiteak gogora ekarri gabe. Beraiei gure oroitzapenik maitagarriena, bihotz-bihotzez.

HONDARRIBIKO UDALA

***HONDARRIBIKO HIRI***
***OSO PRESTU, OSO LEIAL,***
***OSO ADORETSU***
***ETA BETI OSO ZINTZOAN***
***2007KO IRAILAREN 6, 7, 8, 9, 10***
***ETA 11N GUADALUPEKO AMA***
***BIRJINAREN OMENEZ***
***OSPATUKO DIREN***
***EKINTZEN EGITARAUA.***

## GORA AMA GUADALUPEKOA!!!
## GORA HONDARRIBIA!!!

**Aitor Kerejeta**

Alkatea






### Irailak 6
### Osteguna

**16:00** Haur eta gaztetxoen **XXXVIII. MARGO LEHIAKETA** Gipuzkoa Plazan.

**16:30** Hiriko auzoetan barrena Hondarribiko Musika Eskolaren **KALEJIRA**

**18:00** Gazteen **XIII. GRAFFITI LEHIAKETA** eta haurren **VIII. GRAFFITI LEHIAKETA** Gernikako Arbolan.

**18:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK** kalez kale .

**22:30 KANTINEREN AURKEZPEN-DESFILEA** San Juan de Dios Plazatik abiatuko da "Hondarribiko Hiria" Musika Bandarekin batera. Klink elkarteak antolatua.

**23:00** Adin guztietarako **DANTZA MUSIKA** Santiago kalean, **THE BEAT LESS** taldearekin.

**23:30** "Hondarribiko Hiria" Musika Bandaren Jaietako **KONTZERTU BEREZIA** Gipuzkoa Plazan.

**23:30 DISKO JAIA**, Bentan.

### Irailak 7
### Ostirala

**11:15 HAURREN DANBORRADA** Mendelu Auzotik abiatuko da eta Amute-Kosta eta Santa Engraziatik igaro ondoren, hiriguneko kaleetan amaituko du bere ibilaldia.

**12:00** Suziri eta kanpai-hotsez Hiriko Jaiei hasiera ofiziala emango zaie.

Bitartean Txistulariek hiriko kaleetan ibiliko dira 1638ko hiri-setiatze oroigarri hartako **TITI-BILITI** donua joaz.

**12:15 ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK**, Kasino Zaharretik abiatu eta kalez kale ibiliko dira Danborradarekin batera

**13:00 REMIGIO MENDIBURU** eskulturagile hondarribiarrari hil osteko HIRIKO URREZKO INTSIGNIA jartzea.



**17:30** Gipuzkoa Plazan, **TXIRRI MIRRI ETA TXIRIBITON** Junior pailazoen emanaldia.

**18:30** "Hondarribiko Hiria" Musika Banda kalez kale ibiliko da **TITI-BILITI** joaz.

**20:00 TE DEUM ETA SALBEA** Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Eliza Nagusian, Udal Agintariak bertan direla, Parrokiako Abesbatzak Eslavaren **SALBEA** abestuko du.

Bitartean ohiko deskargak egingo dira. Elizkizuna amaitzean Udal-kideek AURRESKUA dantzatuko dute Arma Plazan hondarribiar guztien omenez.
Ondoren, **DANBORRADAREN** kalejira.

**20:00** Guadalupeko Elizan **SALBE** herrikoia kantatuko da. Ondoren, ohiko deskargak egingo dira.

**21:00-23:00 LISAÖ eta IZAERA** musika taldeen emanaldia Bentan, **PSILOCYBE**k antolatuta.






**Irailak 8**
**Larunbata**

**5:00 ALBORADA**

**6:00** Danborradaren eta "Hondarribiko Hiria" Musika Bandaren **DIANA**.
Jarraian, Hondarribiko Hiriak Guadalupeko Ama Birjinari, 1638ko irailaren 7ko gertakizun dohatsuagatik bere eskerrona azaltzeko emandako hitza betetzea, hiria 69 egunez inguratuta egon ondoren askatu baitzuen.

**11:30** Guadalupeko Ama Birjinaren Santutegian Meza Nagusia, Udalbatza bertan dela.

**23:00 BOIKOT eta REINCIDENTES** taldearen emanaldia Bentan eta jarraian **DISKO FESTA**.

**Irailak 9**
**Igandea**

**8:00** San Telmo Tiro Zelaian **VI. ARKU-TIRO TXAPELKETA** "San Telmo Sari Nagusia"

**9:00 URANZU** Dultzaineroen **DIANA**.

**11:00-13:00 BONSAI ETA SUISEKI** erakusketa Zuloaga Etxean

**11:00-13:30 TRIPULATUTAKO TREN-MODELISMOA**, Markos Deunaren Emparantzan (Puntala).
5 hazbeteko lorategi-tren hau da bidaiariak eraman ditzakeen trenik txikiena.

Eguraldi txarra eginez gero, Jostaldi pilotalekura eramango litzateke.

**12:00tik 14:00ra "STREET SKATE"** I. Txapelketa. Hondartzako Skate Parkean. Junior kategoria.

**12:30 SOKAMUTURRA** Kale Nagusian. **URANZU** dultzaineroen emanaldia.
16 urtez beherakoentzat erabat debekatuta dago sokamuturrean parte hartzea.

**16:30-19:30** Arma Plazan, **BINAKAKO III. PUZZLE JAIALDIA.**

Mailak : **a)** 8-11 urte bitartekoak
**b)** 12-16 urte bitartekoak
**d)** 17 urtetik gorakoak

Lehiaketaz kanpo 3 urtetik 7 urte bitartekoek parte hartu dezakete.

**17:00 -19:00 "STREET SKATE"** I. Txapelketa. Hondartzako Skate Parkean. Senior kategoria.

**17:00-20:00 TRIPULATUTAKO MODELISMOA**, Markos Deunaren Emparantzan (Puntala).
5 hazbeteko lorategi-tren hau da bidaiariak eraman ditzakeen trenik txikiena.
Eguraldi txarra eginez gero, Jostaldi pilotalekura eramango litzateke

**17:00-20:00 BONSAI ETA SUISEKI** erakusketa Zuloaga Etxean.



Gora Ama Guadalupekoa !
Joaquín De Goiburu
943 643 045 • 609 402 162
Vehículos y Recambios de Ocasión
Motores Diesel y Gasolina
Bajo Kilometraje
Cajas de Cambio
Pol. Indus. Txiplau. 16 • 20280 HONDARRIBIA (GIPUZKOA)

LENCERIA
XERA
Gora Ama Guadalupekoa !
San Pedro, 5
Tel. 943 64 58 84
HONDARRIBIA



**17:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN** ibilaldia.

**19:00 EUSKAL HERRIKO HARRIZULATZAILEEN 9. LIGA** Bentan

**19:30** Mexikoko **TRIO JALISCO**ren emanaldia Gipuzkoa Plazan.

**19:30-21:30** Hondarribiar **BATUKADA**, San Pedro kalean **PORTUKADA** perkusio taldearen eskutik.

**22:00** Santiago kalean, **ANJE DUHALDEren KANTALDIA**.

**22:00 ATOM RHUMBA** eta **LOS CORONAS** musika taldeen emanaldia Bentan.

**Irailak 10**
**Astelehena**

**9:00** Goizut Dultzaineroen **DIANA.**

**10:00** Meza Nagusia Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Elizan, 1638ko Hiri Setiamenduan hildakoen alde, Udalbatza ere bertan dela.

Aldi berean Hiriko Bandera agurtuko da, eta elizkizunak dirauen bitartean ohiko deskargak egingo dira.

Meza bukaeran Parrokiako Abesbatzak Perossiren LIBERAME abestuko du.

**11:30-13:30 HAUR PARKE ERRALDOIA** Gernikako Arbola plazan (Harresiak)

**12:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN** ibilaldia.

**12:00 AKELARRE** Txaranga kalez kale ibiliko da.

**12:30 SOKAMUTURRA** Bentan. **AKELARRE** txarangarekin. 16 urtez beherakoentzat erabat debekatuta dago sokamuturrean parte hartzea

**14:30 ADINEKOEN OMENEZKO BAZKARIA** Ardora jatetxean, **NAIMA** musika taldearekin.

**14:30etan GAZTEENTZAKO HERRI-BAZKARIA**, Bentan, **AKELARRE** txarangarekin. Jaitan Jaik antolatua.

**17:00-20:00 HAUR PARKE ERRALDOIA** Gernikako Arbola Plazan

**19:00 BRASILGO BATUKADA, PERFUSION** perkusio taldearekin, San Pedro kalean

**20:30 KALEJIRA** "Mensajeros de Irapuato" Mariatxiarekin. Alde Zaharretik San Pedro kalera.

**22:30** "Mensajeros de Irapuato" **MARIATXI**aren eta Guadalajarako folklore dantza taldearen emanaldia, Santiago kalean.

**23:00 SKALARIAK** musika taldearen emanaldia Bentan eta ondoren **DISKO FESTA**.

**Irailak 11**
**Asteartea**

**9:30** Goizut Dultzaineroen **DIANA**

**9:30 BASERRITARREN EGUNA**. Ganadu, fruitu eta barazki lehiaketa. Zumardian.
**12:00 BERTSOLARIAK** Zumardian: Peñagarikano, Irazu eta Colina.

**12:00** Jaietako kartel eta argazki lehiaketako, Graffiti lehiaketako, Erdi Aroko argazki lehiaketeta-





ARRETXE

ERRENTERIA
Larzabal 14 • 943 34 01 82
DONOSTIA
Zabaleta 54 • 943 28 65 72
HONDARRIBIA
J. Alonso 5 • 943 64 27 77
Mendelu 17 • 943 64 70 58

Gora Ama Guadalupekoa !

ko eta Balkoi loredunen lehiaketetako **SARI BANAKETA** Udaletxeko Areto Nagusian.

**17:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN** ibilaldia .

**17:00 IDI-PROBA** Zumardian.

**18:00** Gipuzkoa Plazan , "Klaketa" **HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA.**

**18:30 BASERRITARREN EGUNA** Zumardian, Herri kirola eta trikitilariak.
**18:30** Javier Albisu Perez-en **"LA PELOTA A MANO EN EL SIGLO XXI"** liburuaren aurkezpena Jostaldi Pilotalekuan

**19:00 PROFESIONAL MAILAKO PILOTA PARTIDUAK** Jostaldi Pilotalekuan
1.Partidua: Diaz - Urizelki// Olaetxea - Mendizabal II
2.Partidua:Olaizola II - Peñagarikano // Olaizola I - Beloki

**19:30** Gipuzkoa Plazan, Haurrentzako **MENDARIA**

**19:00-23:00 ABIYUAN** Txaranga kalez kale ibiliko da.

**22:30 PIROMUSIKALA** Hondartzan, "Pirotecnia Pablo"ren eskutik.

**23:00 ZEZEN SUZKOEN ENTZIERROA** Bentatik Butron Pasealekura.**23:00 EL ULTIMO KE ZIERRE** musika taldearen emanaldia, Bentan.

**ABUZTUAK 31 - OSTIRALA**

**22:00 BERTSOTRANPAK** bertso-antzerkia Santiago kalean

**ABUZTUAREN 31TIK IRAILAREN 8RA**

**6:00etan eta 8:00etan** Guadalupeko Santutegian, Guadalupeko Ama Birjinaren **BEDERATZIURRENA**.

**IRAILAREN 1ETIK 15ERA**

Jai Nagusietako kartel eta argazki lehiaketara aurkeztutako lanen **ERAKUSKETA** Zuloaga etxean

**IRAILAK 1 - LARUNBATA**

**11:00 HONDARREZKO GAZTELU ETA IRUDIEN XII. LEHIAKETA**. Hondartzan.

**11:00 "COLOMBAIRE" USAKUME TIROKETA** San Telmo tiro zelaian

**13:00** Ama Guadalupekoa **XXVI. BELAUNTZI ARINEN ESTROPADA.** Txingudi Badian. Iker eta Xabi saria.

**17:00** "Hondarribiko Hiria" nazioarteko **III. SPINNING** ekitaldia, Bentan.

**18:00 XXXI. GUADALUPERA IGOERA.** Oinezko lasterketa. Maila guztietan. Zumarditik abiatuta.

**18:30 "HONDARRIBIKO HIRIA" HIPIKA TXAPELKETA"** Gernikako Arbola plazan (Harresiak)

**IRAILAK 2 - IGANDEA**

**8:00 NAZIOARTEKO PLATER TIROKETA,** San Telmo tiro zelaian

**9:00 MONTAIN BIKE BTT BIRA TXIRRINDULARI PROBA**. Hondartza kiroldegitik abiatuta.

**10:00** Jostaldi pilotalekuan **HONDARRIBIKO III. PILOTA TXAPELKETAKO** finalak. Esku pilota. Benjamin, alebin eta infantil mailetan.

**11:30** Jostaldi pilotalekuan **HONDARRIBIKO III. PILOTA TXAPELKETAKO** finalak. goma paleta. Senior mailan.

**16:30 TXIRRINDULARI PROBA** 12 urtez beherakoentzat Ama Guadalupekoa Ikastetxetik abiatuta.

**17:00** Gernikako Arbolan, "Hondarribiko harresia" **III. LAXOA TXAPELKETA**.

**IRAILAK 15 - LARUNBATA**

**13:00** Ama Guadalupekoa **XXVI. BELAUNTZI ARINEN ESTROPADA**. Txingudi Badian. Iker eta Xabi saria.

**15:00** Kai Berritik abiatuta, Guadalupen zehar pasa eta San Pedro kalean bukatuko den **HONDARRIBIKO I. RALLY SPRINTA .**

**IRAILAK 16 - IGANDEA**

**8:00 HERRI-ESKUALDE MAILAKO XXXVI. HODI TXIKI TXAPELKETA** San Telmo tiro zelaian.

**10:30 TRIAL-SIN** - Euskadi eta Iparraldeko txapelketarako puntuatzen duen proba, Espigoian.

**12:30** Ama Guadalupekoa **XXVI. BELAUNTZI ARINEN ESTROPADA**. Txingudi Badian. Iker eta Xabi saria.

**IRAILAK 23 - IGANDEA**

**9:00 V ELBARRI SUB SARIA** gutxitu fisikoentzat. (Urpeko altxorraren bila) Asturiagan.(Playa de los Frailes )

**URRIAK 17 - ASTEAZKENA**

**20:00etan "HONDARRIBIKO HIRIA" XXXI. SASKIBALOI TXAPELKETA - IX. TATE SAEZ MEMORIALA** , Hondartza Kiroldegian.

BAR ONDARRIBI

AUKERA HAUNDIA BANDERILA ETA KAXUELETAN

**Gora Ama Guadalupekoa !**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705
20280 HONDARRIBIA

**Gora Ama Guadalupekoa !**



aurkibidea

3 - 7.Jaietako programa

8. Botika eta okindegien txandak

9-13.Herrian Barrena

15.Elkarrizketa

20. Kantinerak

27.Koldo Ortega

33.Gazte Informazioa

37.Lehiaketa/ Ganbara

38.Demografia

**Argitaratzailea:**
Euskara Batzordea
**Erredakzioa**:
ZIF & Comunicación
943 638128
**Posta elektronikoa:**
info@zifcomunicacion.com
**Publizitatea:**
ZIF & Comunicación
**Kolaboratzaileak:**
Koldo Ortega, Ainara Elizondo, Martin Iturbe

**Argazkiak**:
Foto Etxeberria, Hondarribiko Udal Artxibategia
**Maketazioa:**
Usoa Ramírez Melón
**Inprimategia:**
Antza- Zirkuitu ibilbidea 2 - 20160 Lasarte-Oria
L.G.SS 122/86
HONDARRIBIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien ondorioak.

## TXANDAKO BOTIKAK IRAILEAN

2- Alameda.................... Harresilanda, 9 ................................. 943 645798
8- Alameda ....................Harresilanda, 9................................... 943 645798
9- Erauskin ....................San Pedro, 22 ...................................943 641018
16- Mayi Martinez .... Almirante Alonso kalea, z/g ......................943 642191
23- Iraola ..................San Pedro, 5 ............................................943 641027
30- Sagrario Fiz..... Sokoa Merkatalgunea .................................943 644316

## TXANDAKO OKINDEGIAK IRAILEAN

2- Arratibel..................Mendelu auzoan ......................... 943 641975
8- Garmendia ............Portuan .......................................943 641136
9- Martinez .................Kale Nagusia, 17 .........................943 641212
16- Arratibel ...............Mendelu auzoan .........................943 641975
23- Garmendia ............Portuan ........................................943 641136
30- Martinez ..............Kale Nagusia, 17 ..........................943 641212

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

### HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak: ..........................................................................................................

Helbidea:.................................................................................................................

Herria: ....................................................................................................................



RESTAURANTE ASADOR
XINERE
**Gora Ama Guadalupekoa!!**
C/ MAYOR, 31
TEL. 943 64 35 00
HONDARRIBIA

Gaxen
okindegia • gozotegia
Gaxen
kafetegia
**Gora Ama Guadalupekoa!!**
San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995
Zuloaga, 6
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656

# Euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute Pilota Eskolak eta Udalak

Hondarribiko Pilota Eskolak eta Udalak euskararen erabilpena sustatzeko lankidetza hitzarmena sinatu dute gaur goizez Udaletxeko Areto Nagusian ospatu den ekitaldi batean. Han izan dira Aitor Kerejeta alkatea, Iñigo Salaberria Pilota Eskolako presidentea, Ixabel Olazabal Euskarako zinegotzia eta Xabier Tife Kiroletako zinegotzia.

"Euskararen normalizazioa da gaur egun dugun erronka nagusia Hondarribian;datu linguistikoek diote jendearen ezagutza-maila ona dena baina erabilera txikia. Azken honek gora egitea bilatzen du akordioa honek beste gauza askoren artean" esan du Olazabal zinegotziak.




Iñigo Salaberriak aldiz Pilota Eskolak "euskararen aldeko apustu argia egin duela" esan du. "Urte eta erdiko lan sakon baten ondoren, akordioan sinatu dugu eta orain euskararen aldeko lanarekin jarraitu behar dugu".



*Akordioa Udaletxeko Areto Nagusian sinatu zen*

Azkenik, Aitor Kerejeta alkateak eta Xabier Tife zinegotziek "erabileran eragiteko kirol esparrua aukeratu dela" esan dute. "Haur, gazte eta helduen kopurua handia da, aurretik Arraun Elkartearekin egin genuen eta orain Pilota Eskolarekin. Udalak asmo berarekin jarraituko du aurrerantzean ere".

Ekitaldia akordioaren sinaketarekin amaitu da. Kerejeta eta Salaberriak bere sinadura ipini dute dokumentuetan.



# Erdi Aroko jatorria duten bost hiri frantsesekin bilkurak mantendu dira

Aitor Kerejeta Hondarribiko Alkatea, Erdi Aroko Hirien Sarearen presidente moduan, Guillermo Echenique eta Eva Fernandez, Bidasoa Activa-ko arduradunekin batera, Oloron-en (Frantzian) izan da duela gutxi herrialde honetako bost hirietako ordezkariekin, sarean sartu ahal izateko lanak burutuaz. Aipatutako hiriak Donibane Garazi, Bérac, Saint Emilion eta Charlat dira, baita Oloron ere.

Bileraren helburua "proiektuak Europan bokazioa daukala azaltzea izan zen" esan zuen Kerejetak. "Espainia, Portugal eta Frantziako hiriak jaso nahi ditu. Une hauetan hamar hiri gaude bertan: Hondarribia, Lizarra, Almazán, Biasteri, Sos del Rey Católico, Consuegra, Sigüenza, Pedraza, Coria eta Olivenza".

Azken bilera hau, aurretik Donibane Garazi eta Oloron-eko alkateekin mantendutako beste baten jarraipena izan zen. Bi hiri hauek sarean sartzeko asmoa erakutsi zuten.

Hondarribiko alkatearen ustetan "urtea amaitu aurretik Frantziako hiri hauek bere partehartzea baieztatzea gustatuko litzaiguke. Urriaren bukaeran Consuegran burutuko dugun bilera batera etorriko dira, han egingo duguna ikusteko. Erdi Aroko Hirien Sareak antolatuta, bertan Ertaroko Pintxo eta Tapen lehiaketa bat ospatuko da".



*Aitor Kerejeta alkatea Frantziar delegazioarekin*



Prudencia Ancisar Arozenak 101 urte bete ditu duela gutxi. Aitor Kerejeta alkatea bere etxera joan zitzaion bisitan zorionak emateko asmoz, eta lore sorta bat eman zion. Prudencia osasuntsu dago, eta pozik bere senideez inguraturik. Zorionak!



Ez da gutxiago izan Maria Asuncion Mateo Aranzana. Bere ehungarren urtebetetzean Aitor Kerejeta alkate eta Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren bisita jaso zuen. Irudian, pozik bere familiarekin ospatu zuen bazkariaren une batean.






# Isabel Arrillagak irabazi zuen Emekiren margo lehiaketa

Isabel Arrillaga irundarra izan zen Emeki Elkarteak antolatutako XIV. Margo Lehiaketaren irabazlea. Hogeitahamar partehartzaile izan ziren, goizeko lehen orduetatik hiriko txokoren bat margotzeko asmotan etorri zirenak.

Bigarren saria Iruñeako Xabier Celestinorentzat izan zen eta hirugarrena Arturo Vinuesa irundarrarentzat. Azkenik, akzesit-a Gasteizko Juan Luis Hueterentzat izan zen.

Lehiaketaren helburua, hiriko toki berezienak, paisaiak eta monumentuak nabarmentzea da.

Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Susana Zaldivar, Enrique Albizu, Fernando Mikelarena, Jose Gracenea, Isabel Apaolaza, Conchi Pascua eta Maite Gorostidi.



*Aurtengo lehiaketaren garaileen irudi bat*

# Eguraldi txarrak Herri Giroa ia zapuztu zuen

*Zenbait ekitaldi bertan behera geratu ziren*



*Jendeak eguraldi kaxkarrari aurre egin zion*

Abuztuaren erdialdera Kultura departamentuak antolatzen duen Herri Giroak aurten arerio sendoa izan du: eguraldia. Egun osoan ea ez zuen gelditu eta egitarau oparoa prestatu bazen ere, azkenean horietako asko bertan behera geratu behar izan ziren.

Artisautza eta elikagaien azokak ospatu ziren baina eguraldiak ikusle asko beren etxeetan utzi zituen goizetik. Erraldoi eta Buruhaundiek ezin izan zuten bere erakustaldia burutu, eta egin ahal izan ekitaldi gutxienetakoa, Iñaki eta Inaxio Perurena aitasemeen erakustaldia izan zen, Merkatu plazan (Denda kalean).

Berritutako Jostaldi pilotalekuan pilota partidak jokatu ziren bederen. Berasaluze VIII eta Albizuri, Mendizabal eta Oteiza lehiatu ziren lehen partidan, eta Unanue eta Mendizabal II Koka eta Argote bigarrenean.

JAVIER OPTIKO
Gora Ama Guadalupekoa !
OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK
San Pedro, 6
Tel. eta Faxa: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA

Gora Ama Guadalupekoa !
ENARA, C.B.
INMOBILIARIETAN ADITUAK
www.inmobiliariaenara.com
VITALICIO ASEGUROAK
San Pedro 1 Tel. 943 64 39 72
20280 HONDARRIBIA Tel. y Fax 943 64 54 38
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN Tel. y Fax 943 00 46 28

## Prebentzio Komunitarioak 12 eta 18 urte arteko gazteentzat kamisetak banatzen ditu



*Kamisetak jaiak amaitu arte banatuko dira*

Irailean ospatuko diren Jai Nagusiak direla eta, hirugarren urtez jarraian, Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak kamisetak banatuko ditu. "Udan ondo pasa baina ez pasa" kanpainaren barnean dagoen ekimen bat da.

12 eta 18 urte bitarteko hondarribitarra bazara, zuretzat eta zure kuadrilarentzat kamiseta bat daukagu. Etortzea eta eskatzea besterik ez daukazu (Harresilanda 3 atzeko aldea) 10:00etatik 12:00etara.

Zerbitzuko koordinatzaile Richard Sánchez, eta Aitor Kerejeta alkateak aurkeztu zuten Areto Nagusian burututako prentsaurreko batean programa. "Gazteei alkoholak eta beste drogek dauzkaten ondorioak zeintzuk diren gogoratu behar diegu, eta gehiago udako hilabeteetan eta herrietako jaiak hain gainean ditugun egun hauetan".

Animo, aurten aukeratzeko lau kolore bait daude! Eta badakizu, HONDARRIBIAN ONDO PASA, BAINA EZ PASA.

## Hondarribiko Ikurriñaren egunean jai egun ederra

Hondarribiko Ikurriña egun handia izan zen herrian. San Miguel TKE ligako bederatzigarren jardunaldia ospatzen zen, eta Bidasoako uretan jokatu beharreko estropada denboraldiaren erdian iritsi zen. Hondarribia Arraun Elkarteak egitarau oparo bat prestatu zuen, goizeko hamarretatik hasi eta gauerdirarte iraun zuena.

Musika, txaranga, erraldoi eta buruhandiak, bazkari herrikoia, kalejira eta estropada osteko disko-festa izan ziren eguneko protagonista nagusiak, estropada bera kontutan izan gabe.

Guztiok dakigun bezala, garaipena Urdaibairentzat izan zen, Pedreña sailkatu zen bigarren tokian, Orio hirugarren eta Hondarribia laugarren.

Irudian agertzen den bezala, bazkari herrikoia Klink Elkartean ospatu zen, eta bertan izan ziren ehun bat zaletu. Jai giro ederra izan zen bertara joan zirenetako batzuk esan digutenez.




*Klink Elkarteko kideek lan handia egin zuten bazkarian*

Aise
Gora Ama Guadalupekoa !
Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola
Miren Zabala
Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN ESPEZIALIZATUA
Bar Ignacio
Gora Ama Guadalupekoa !
San Pedro, 20 20280 Hondarribia
Tel. 943 643 557

# Alardeko konpainien ensaioak jarraitzeko gida

**OSTEGUNA ABUZTUAK 30**

*MIXTA KONPAINIA*
-19,00etatik 21,00etara

**OSTIRALA ABUZTUAK 31**

*MIXTA KONPAINIA*
-19,00etatik 21,00etara

**LARUNBATA IRAILAK 1**

*ARKOLL KONPAINIA*
-20,00etatik 22.00 etara

*AKARTEGI KONPAINIA*
-20,00etatik. a 22, 00 etara

*MIXTA KONPAINIA*
-19,00etatik 21,00etara

**IGANDEA IRAILAK 2**

*ARKOLL KONPAINIA*
-20,00etatik 22,00etara

*AKARTEGI KONPAINIA*
-20,00etatik 22,00etara

*MIXTA KONPAINIA*
-19,00etatik 21,00etara

**ASTELEHENA IRAILAK 3**

*MUSIKA BANDA*
-20,30etatik 23,00etara

*JAIZUBIA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*PUEBLO KONPAINIA*
- 20,00etatik 21,30etara

*MONTAÑA KONPAINIA*
-19,00etatik 21,30etara

*SEMISARGA KONPAINIA*
-20,00etatik 22,00etara

*KOSTA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*AMA GUADALUPEKOA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*GORA GAZTEAK KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*BETI GAZTE KONPAINIA*
- 20,00etatik 24,00etara

*GORA ARRANTZALE GAZTEAK KONPAINIA*
- 21.00etatik 22,30etara

*OLEARSO KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,30etara

**ASTEARTEA IRAILAK 4**

*TANBORRADA*
- 20,00etatik 21,30etara

*JAIZUBIA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*ARKOLL KONPAINIA*
- 20,00etara 22,00etara

*AKARTEGI KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*HERRIA KONPAINIA*
- 20,00etatik 21,30etara

*MONTAÑA KONPAINIA*
- 19,00etatik 21,30etara

*SEMISARGA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*KOSTA KONPAINIA*
- 19,30etara 22,00etara

*GORA AMA GUADALUPE-KOA KONPAINIA*
- 21,00etattik 23,30etara

*AMA GUADALUPEKOA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*GORA GAZTEAK KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*BETI GAZTE KONPAINIA*
- 20,00etatik 24,00etara

*GORA ARRANTZALE GAZTEAK KONPAINIA*
- 21.00etatik 22,30etara

*MENDELU KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*OLEARSO KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,30etara

*DONE PEDRO ITSAS GIZONEN KOFRADIA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

**ASTEAZKENA IRAILAK 5**

*TANBORRADA*
- 20,00etatik 21,30etara

*JAIZUBIA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*HERRIA KONPAINIA*
- 20,00etatik 21,30etara

*MONTAÑA KONPAINIA*
- 19,00etara 21,30etara

*SEMISARGA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*KOSTA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*GORA AMA GUADALUPE-KOA KONPAINIA*
- 21,00etatik 23,30etara

*AMA GUADALUPEKOA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*GORA GAZTEAK KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

*BETI GAZTE KONPAINIA*
- 20,00etatik 24,00etara

*GORA ARRANTZALE GAZTEAK KONPAINIA*
- 21.00etatik 22,30etara

*MENDELU KONPAINIA*
- 19,30etatik 22,00etara

*OLEARSO KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,30etara

*DONE PEDRO ITSAS GIZONEN KOFRADIA KONPAINIA*
- 20,00etatik 22,00etara

EXPERT
GEURIA
SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14
ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86
Gora Ama Guadalupekoa !
San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



Ama Moda Infantil

Gora Ama Guadalupekoa !!

Matxin de Arzu, nº1 20280 HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 51

Errandonea

Gora
Ama Guadalupekoa !!



Carretera de Guadalupe, 74
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 59 33

PANADERIA - OKINDEGIA
ARRATIBEL



Gora Ama Guadalupekoa!!
"HORNO DE LEÑA"

Barrio Mendelu - C/ Zubieta, 12
Telf: 943 64 19 75 - HONDARRIBIA



Minicontenedores
EKOLAN
670 30 30 30

Gora Ama Guadalupekoa !

Mourlane Mitxelena s/n
20280 Hondarribia

ekolan@ya.com

Gora Ama Guadalupekoa !!

CASA TOBALINA

Jaietako jantzietan adituak

C/ Zuloaga nº5 - 20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 10 69

HOTEL **
SAN NICOLAS

Gora Ama Guadalupekoa !!

Plaza de Armas, 6 - 20280 HONDARRIBIA
Tels. 943 64 42 78 - 943 64 50 50 / Fax 943 64 62 17
www.hotelsannikolas.com

Zabala
Jatetxea

Gora Ama
Guadalupekoa !

San Pedro Kalea 8
Hondarribia



Aurki

Gora
Ama
Guadalupekoa!

Harresilandia kalea, 2 - Telf.: 943 64 06 57
20280 Hondarribia

# MIKEL JAUREGI

## Hondarribiko Alardearen Burgomaisua



***Nekez ahaztuko du Mikel Jauregi hondarribiarrak joan den martxoaren 16a. Batetik, bere urtebetze eguna izan zelako, eta bestetik, 56 urte bete zituen egun berean jakinarazi ziotelako Alardeko burgomaisu izendatu zutela. Makinak diseinatzea lanbide duen delineatzaile honek ez zuen espero inondik ere halako izendapenik; hala ere, ilusio eta poz handiz hartu du Jose Mari Gurucheten lekukoa, edozein hondarribiarrentzat ohore handia den kargua eta, Mikelek aipatu bezala, ahalik eta ongien betetzen saiatuko dena. Hona jarraian, Hondarribiko jaien atarian gaudela, ahots sakoneko gizon jator honek kontatutakoak.***

**Martxoan izendatu zintuzten burgomaisu, harrezkero nola aldatu zaizu bizitza?**

Beno, ostiral arratsaldeetan Hondarribiko artxibora eta larunbatetan Irungora joateko ohitura hartua nuen. Afizioz nire denbora librean alardeari buruzko datuak biltzeari ekin nion artxiboetan, gero gustuko gauzak topatzen hasi nintzen eta azkenean, 1800. urteaz geroztik aurkitzen nituen gauza bitxiak biltzen bukatu nuen. Martxotik hona, ordea, akabo. Zaldia dela, bilerak direla, denbora urritu zait geroztik, baina atseginez hartutako erantzukizuna da burgomaisu izatearena eta ez zait gehiegi axola zenbait gauza egiteko denbora gutxi izatea.

**Espero al zenuen izendapena, Mikel?**

Ez, ez nuen espero. Alardearen mundu honetan ibilia naiz eta jakin banekien norbaiten bila zebiltzala, baina sorpresa handia izan da. Ni bezala beste edozein har zezaketen. Gabonetan errege gisa zaldi gainean ibili nintzen, agujetak ere izan nituen, eta gerora zaldi gainean gehiago ibili beharrik izango ez nuela sinistuta nengoenean, nork esan zaldiarekin hasi beharko nuela berriro? Dena den, orain hobeto moldatzen naiz. Ordu beteko saioa egiten dut astean birritan eta eguna iristean ondo moldatuko naizen esperantza dut.




Jatetxea

Gran Sol

.Sukaldaritza tradizionala

.Eguneko menua

.Karta

Gora
Ama
Guadalupekoa !

San Pedro kalea 63
Tel. 943 64 70 75
20280 HONDARRIBIA


Ainara Elizondo

**Aurreko alardeak nola bizitu izan dituzu? Zure hatxero mantala non utziko duzu aurten?**

Urtero ezkutuan ateratzen naiz hatxero guztiak bezala; morrioia eta gezurrezko bizarraren azpian -nahiz eta nik bizarra badudan- inork ez ezagutzeko moduan ateratzen gara desfilean. Aurten, ordea, justu kontrakoa izango da niretzat; zaldi gainean eta denen begi bistan egongo naiz.

**Aurtengo alarde eguna larunbata izango da, eta herriko jendeaz gain, kanpoko jendea ere gehiago izango da Hondarribian. Beldurrik ematen al dizu horrek burgomaisu gisa zure estreinako urtea izanda?**

Ez, beldurrik ez diot horri. Aurtengo Hondarribiko alarde eguna Irungoaren antzekoa izatea espero dut, baketsua.

**Elkarrizketa batean aipatua duzu hilaren 8a, gauza askoren artean, alardearen alde lan egiten duten lagun askoren saria dela.**



Bai, jakina baietz. Azken hilabeteotan bilerak izan ditugu, baina jende asko da urtean zehar txingurriak bezala lanean aritzen dena. Zaldi gainean doana ez da benetako protagonista, meritua desfilean parte hartzen duten lagunena da, beraiek ateratzen baitute aurrera alardea, eta horrekin batera txalogarria ere bada alardea hasi aurretik desfilea ikusteko orduak zain ematen dituen jendearen borondatea.

**Nortzuk izango dituzu gogoan irailaren 8an zaldi gainera igotzen zarenean?**

Jende ugari dudarik gabe. Emaztea eta alaba, gurasoak, osabak, aiton-amonak... Txiki-txikitatik festa handi honen esanahia eta alardearen garrantzia erakutsi didaten inguruko asko. Baina gogoan bereziki bi lagun izango ditut: Inaxio Ugarte, Danbor Nagusia izana, eta Luis Lago abokatua.

**Bukatzeko, ze mezu bidaltzen die, alardea ospatzeko aste gutxi falta direla, Mikel Jauregi burgomaisuak hondarribiarrei?**

Eguna alaitasunez bizi dezagula, ilusioz, umorean, bakean eta elkarrekiko errespetuan, beste hainbat gauzaren artean.

Irailaren 8an buruzagiek eta jendeak emandako aholkuak jarraituko dituela aitortuz amaitu dugu Mikelekin elkarrizketa. Eguraldia lagun izango dugulakoan, zorte onena opa diogu Mikeli hondarribiarrontzat hain seinalatua den egun honetan, ziur jendearen txalo eta animorik ez zaiola faltako.





# Zesta punta ikuskizuna abuztuko ostegunero Jostaldin

Abuztuko bost ostegunetan Jostaldi Pilotalekuan zesta punta ikuskizun bana izango dugu, Hondarribiko Sari Nagusiaren barnean. Ekitaldiaren aurkezpena Udaletxeko Areto Nagusian burutu zen, eta han izan ziren Aitor Kerejeta alkatea, Jai-Alive enpresaren gerentea den Iñaki Egiguren, eta zenbait pilotari profesional, hala nola Julen Bereikua, Jon Arriaga, Iker Foronda eta Imanol López.

"Jostaldi pilotalekuan txapelketa hau ospatzea guretzat ohore handia da" esan zuen Iñaki Egigurenek. "Hogei profesional dauzkagu gurekin, gehienek urtarriletik ekainera Ameriketan jokatzen dutenak, Floridan hain zuzen, eta orain Euskadira datozenak Orange zirkuitoan parte hartzeko".

Aitor Kerejeta alkateak aldiz, "hemen ohituak ez gauden ikuskizun bikainaz gozatu ahal izango dugu. Milesker denoi eta batez ere Kirolzer enpresari, bera izango baita proiektua kudeatuko duena".

Oraindik ez da ziurra zenbatekoak izango diren sarrerak, baina antolatzaileek prezio ekonomiko bat jarriko dutela ziurtatu zuten.



Aurkezpen ekitaldia egin zeneko irudi bat

# Bidasoa XXI elkarteak deialdia zabaldu du



*Ikastaroak Hondartza kiroldegian emango dira*

*8, 9 eta 10 urteko haurrei zuzentzen zaie*

Bidasoa XXI igeriketa elkarteak 1997, 1998 eta 1999an jaiotako hondarribiarrei deia luzatzen die, kirol hau praktikatzeko asmotan. Interesa duenak, hondartzako Tintin Elkartetik igaro beharko du. Ezinbestekoa da krol, bizkar eta bular-igeriketa diziplinak dominatzea. Jarduera Hondartza kiroldegian garatuko da.

muñozarena
inmobiliaria
Gora Ama Guadalupekoa !
Jon Muñoz Ortiz | comercial
móvil: 648 231 360
C/ San Pedro 53 - 20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
tel. 943 64 47 01 - fax: 943 64 41 53
www.munozarena.com - info@munozarena.com

MOVELLAN
PASCUA
GALERIA DE ARTE
Gora Ama Guadalupekoa !
Zuloaga, 10 - HONDARRIBIA
Tels.: (943) 64 14 14 - (943) 64 28 65
Domingo Eguía, 1 - HONDARRIBIA

Self -Service

ONDARRAITZ

Gora Ama Guadalupekoa !

Butrón Pasalekua

Tel.: 943 64 27 99

20280 HONDARRIBIA

CANTINA

GUADALUPE

Gora Ama Guadalupekoa !!

-Menú del día
-Carta
-Terraza

Montaña, 27 - Tel. reservas 943 64 12 11

HONDARRIBIA

Gora Ama Guadalupekoa !

arroka berri
restaurante

Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105

Alimentación

LUR-GORRI

Gora Ama Guadalupekoa!

Ramón Iribarren, 24 - HONDARRIBIA

Tel. 943 64 22 08



HELADERIA - CAFETERIA

AQUARIUM

Paseo Butrón, 20
HONDARRIBIA
Tel. 943 64 48 07

Gora Ama Guadalupekoa !

EDERKI

JANTZIAK

San Pedro, 4 - Tel. 943 64 03 50
20280 HONDARRIBIA

Joanerik joaki,
Eldutik elduki,
eta jantzi polita
ederrerik Ederki.

Gora Ama Guadalupekoa !

RAFAEL

TABERNA - BAR





Gora Ama Guadaplupekoa!

San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia



C/ Zuloaga, 6 bajo
Hondarribia

GORA AMA GUADALUPEKOA!

Tel. 943 641 851

Gainean ditugu 2007. urteko jaiak. Haur, gazte eta helduentzat pentsatutako egunak dira, eta horretarako ekitaldi zabal bat pres-tatzen da Udal Kultura Batzordetik. Gazteak dira gehien disfrutatzen dutenak, baina denentzat tokia bada. Irudietan ikus dezake-gun bezala Hondarribia jendez lepo egoten da irailaren lehen egunetan, sokamuturra, margo lehiaketak, mezak, bazkariak... eta nola ez, irailaren 8ko Alardea dela eta.

Lerro hauen bitartez, aldizkariaren irakurle zaren horri, eta nola ez, Hondarribian bizi eta bertara hurbiltzen diren guztiei, egun eder eta alaiak igarotzea desiratzen dizuegu.

**Gora Ama Guadalupekoa!!!**











**Danborrada**
Maddi Kanpandegi Mitxelena



**Musika Banda**
Amezti Gojenola Sagarzazu



**Zalditeria**
Aloña Aranburu Aizpitarte



**Herrikoa**
Maria Huarte Bascoy



**Montaña**
Lierni Aranbarri Elizazu



**Semisarga**
Garbiñe Zelaieta Olazabal



**Gora Gazteak**
Maitane Marin Fernandez



**Beti Gazte**
Iosune Arestin Duinat



**Gora Arrantzale Gazteak**
Maria Narbarte Etxebeste

## 2007ko ALARDEKO KARGUAK

**Burgumaisua** Mikel Jauregi Berrotaran
**Batailoiko Komandantea** Aitor Moran Mitxelena
**Burgumaisuaren laguntzaileak**
Jon de Pablos Lekuona
Elías Moran Sagarzazu
Pedro Alkain Arribillaga
**Kapitainak eta Unitate Buruak**
Hatxeroak:Juan José Sorondo Tolosa
Danborrada:Iñaki Sagrado Larrarte
Musika Banda:Alfonso Moreno-Arrones Feijoo
Zalditeria: Josemari Siguero Goicoechea
Jaizubia: Marcelino Olaciregui Del Puerto
Arkoll: Nicolás Arruabarrena Arrieta
Akartegi: Javier Izeta Goicoechea
Herria: Mari Bello González
Montaña: José Ceberio Berrotaran
Semisarga: Antonio Arocena Gaztañaga
Kosta: Aitor Sagarzazu Errazkin
Gora Ama Guadalupekoa: Ángel Aramendi Jauregi
Ama Guadalupekoa: Jose Maria Salaberria Mullor
Gora Gazteak: Haritz Errazkin Perez
Beti Gazte: José Miguel Elduayen Eizaguirre
Gora Arrantzale Gazteak: Maximiano Emazabel Goicoechea
